

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Korapiloa askatzen

Maiatzaren 22ko emaitzek irabazle eta galtzaile argiak irudikatu zituen, baina gehiengo osorik ezean, honek nahitaez ez du askatzen gobernagarritasunaren korapiloa. Irri eta malloen gaua pasa ondoren hasi da karta jokoa, gehiengoak errespetatzearen auzia, noiz den zilegi eta noiz lapurreta, eta posizioa hartu eta eskatzearen kontuak. Alderdi askok gainera, hauteskunde autonomikoei begira egonik, inorekin ezkontzeko asmorik ez dute islatu nahi izan, oraingo konpromisoak hurrengoetan gerta daitezkeen bikoteak ez oztopatzeko. Kontu honetan poligamia ez luke hain gaizki ikusiko norbaitek.

Udal erakundeak osatuak ditugu eta Batzar Nagusien eraketarako zertzelada batzuk ikusi badira ere korapiloa ez da behin betiko askatu. PSE-EEK EAJri babesa eskaini zion lau udalerrien truke, baina errealki jomugan Lasarte-Oria zegoen, herri honetan bakarrik baitzuen PSEk gehien-goia. Iñigo Urkulluk bi egun lehenago esandakoaren aurka, Lasarte-Oriako EAJko hautagaiak Bilduri eman diote bozka eta herri plataformarekin batera PSEri kendu diote alkatetza. Alderdi diziplinaren haustura baino akordio zantzuak atzematen dira. Lanestosako PSEko kideek bai hautsi dutela barne diziplina,



INIGO AZKONA

Bilduri bozka eman eta EAJri alkatetza kendu orduko eskatu baitie PSEk zinegotzi akta entregatzeko. Tokian tokiko berezitasunetik harago, PPK herri batzuetan EAJren aldeko bozka eman du Bilduren udal gobernua ekin asmoz eta PSEk akordio globalik ezean EAJri bozkatuko ez zionaren mehatxua bete du. Ez dugu jakingo Lasarte-Oriako udala goizen eratzek zer mailatan baldintzatu dituen beste herrietako balizko akordioak.

EAJk ez du guztiz argitu ze jarrera hartuko duen Gipuzkoako Ahaldun Nagusiaren aukeraketa egunean. Lasarten gertaturikoak Gipuzkoak Bilduren Ahaldun Nagusia izango duenaren ideia babesten du, zail ikusten baita EAJren hautagaiak PSEren babesa jasotzea eta horrela berretsi dute PSEko buruek Lasartekoaren ostean. Baina Elorrioren PPre babesari esker EAJk alkatetza lortu du eta gertaera mugatu bat bakarrik al den ez dugu jakingo momentuz. Karta jokoa ez dela amaitu dirudi eta partida hasi zenetik keinu ezberdinak ikusten ari gara, oraindik negoziatze korik badela erakutsi asmoz. Korapiloa askatzen hasi da ekainaren 11n, baina politikan hain beharrezkoa den zuhurtziarekin, udarak oraindik ere sorpresak eman ahal dizkigula ez baztertzea hobe, batek daki. ■

Alderdi askok inorekin ezkontzeko asmorik ez dute islatu nahi izan, oraingo konpromisoak hurrengoetan gerta daitezkeen bikoteak ez oztopatzeko. Kontu honetan poligamia ez luke hain gaizki ikusiko norbaitek

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



esan du kirolariak, kirol jardunean oinarritzea duen lehiakortasunak telekameran aurrean abandonatu izan balu bezala.

Nagusiaren okerkeriari aurre egin ez izanaren latsa, esaldi horrekin estali duela sinesteak, langile bakar bat ezagutu ez duenaren seinale da, eta Leitzako pelotariak bere inguruan langilerik ez duela ezagutzen ezin da sinetsi. Guk horretan ez dugu zer egirik esan du goizuetarrak, lekuindarrari nagusiak berea lehiatzen eragotzi diolarik. Ez zuela finala jokatuko alegia, finantzieroki desastre bat zela gibelaraztea sanferminak eta besteak gainean. Eta Aimarrek obedi-

Langile soilak gara

tu, kirolariak esaneok gara eta ez dugu sesiorik maite. Oinatzek, bakoitzak bereari so, biktimaren tonuz langile izatearen aipuz likidatu nahi izan du bere jarrera intsolidarioa, langileriaren hizkuntzan eskirol hitzez laburbiltzen dena. Negozioa, espektakulua, kirola. Trinitatea. Eta bat eta bakarra izan dadin, kirolarien obedientzia ezinbestekoa da, kontratu pribatuetan doa eta honen zutabe da. Erdaraz mintzatu den euskal pilotaren trinitateak, barne arazo bat izan du konpontzeko bidean dutena. Hurrengo kontratuetan agian.

Oharra: Xalاک finala jokatuko duela jakin dut testua idatzi ondoren. Bego horretan. ■